**3.- Udaltzaren erabaki-proposamena, Leader gunearen barruan dauden landa-udalerriak ekonomikoki sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak eskatzeari buruzkoa.-** Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaio osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartu dela Leader gunearen barruan dauden landa-udalerriak ekonomikoki sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak eskatzeari buruzko Udaltzaren erabaki-proposamena, 2021eko ekitaldirako, dagoeneko deialdia atera delako; baina ez denez gai hau lehenago dagokion Informazio Batzordeko irizpenaren menpe jarri, bat etorritz Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikularekin, egokitzen da puntu hau gai-zerrendan sar dadila berrestea.

Udaltza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du aipatutako gaia osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Puntu honen gaineko erabaki-proposamena jakinarazi da; honela dio:

**“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2020ko abenduaren 22ko Araua, 2021eko ekitaldirako arautzen dituen Leader gunean sartutako landa-udalerrien promozio, garapen eta dibertsifikazio-ekonomikora bideratutako laguntzak, 2015-2020 aldiko Euskadiko Landa Garapenerako Programaren esparruan onartutakoak (2020ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 261. zk.).

Horregatik, Udaltzari honako erabaki hau onestea proposatzen zaio:

**Lehenengoa.-** Onestea *Etxaurren Ikastolako (Zuhatza, 2. poligonoa, 592. partzela) berogailua, etxeko ur beroa eta aireztatze-sistema hobetzeko proiektua*, 2017ko abendukoa, M<sup>a</sup> Rosario Perez Martinek idatzitakoa, eta eguneratutako aurrekontua, 2020ko azaroaren 20koa, 573.612,99 €-ko (BEZa barne) kontratarako exekuzio-zenbatekoa duena.

**Bigarrena.-** 2015-2020 aldiko Euskadiko Landa Garapenerako Programaren barruan Leader gunean sartutako landa-udalerrien promozio, garapen eta dibertsifikazio-ekonomikora bideratutako laguntzen deialdian parte hartzea, honako lan hauek egiteko:

- *Etxaurren Ikastolako (Zuhatza, 2. poligonoa, 59.2 partzela) berogailua, etxeko ur beroa eta aireztatze-sistema hobetzeko proiektua.*
- *Luiaondoko La Torre kaleko 17. zenbakiko erabilera anitzeko espazioak egokitzea.*

**Hirugarrena.-** Dirulaguntzaren eskaera eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztea Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailean.

Arespalditzan.- ALKATE-UDALBURUA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

**4.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeen kokaleku diren udal-jabetzako higiezinetan obrak egiteko eta karpak hornitu eta instalatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeari buruzkoa (Udalaguntza-2020).** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartu dela Udalbatzaren erabaki-proposamen hau, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeen kokaleku diren udal-jabetzako higiezinetan obrak egiteko eta karpak hornitu eta instalatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeari buruzkoa (Udalaguntza-2020). Izan ere, eskaera aurkezteko epea bukatzen zen, baina gai hau ez denez lehenago dagokion Informazio Batzordeko irizpenaren menpe jarri, bat etorri Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluekin, egokitzat jotzen da puntu hau gai-zerrendan sar dadila berrestea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du aipatutako gaia osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio erabaki-proposamena, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeen kokaleku diren udal-jabetzako higiezinetan obrak egiteko eta karpak hornitu eta instalatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak eskatzeari buruzkoa (Udalaguntza-2020). Horrela dio:

#### **“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-** Hezkuntzako sailburuaren 2020ko abenduaren 2ko Agindua, zeinaren bitartez deialdia egiten baita hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeen kokaleku diren udal-jabetzako higiezinetan obrak egiteko eta karpak hornitu eta instalatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzak eskuratzeko (Udalaguntza-2020).*

*Esandakoagatik, Udalbatzari honako erabaki hau onestea proposatzen zaio:*

***Lehenengoa.-** Onestea Etxaurren Ikastolako (Zuhatza, 2. poligonoa, 592. partzela) berogailua, etxeko ur beroa eta aireztatze-sistema hobetzeko proiektua, 2017ko abendukoa, M<sup>a</sup> Rosario Perez Martinek idatzitakoa, eta eguneratutako aurrekontua, 2020ko azaroaren 20koa, 573.612,99 €-ko (BEZa barne) kontratarako exekuzio-zenbatekoa duena.*

***Bigarrena.-** Hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeen kokaleku diren udal-jabetzako higiezinetan obrak egiteko eta karpak hornitu eta instalatzeko gastuak finantzatzeko dirulaguntzen deialdian parte hartzea (Udalaguntza-2020), lan hauek egiteko:*

- *Etxaurren Ikastolako (Zuhatza, 2. poligonoa, 59.2 partzela) berogailua, etxeko ur beroa eta aireztatze-sistema hobetzeko proiektua.*

**Hirugarrena.-** *Dirulaguntza eskaera eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztea, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailean.*

*Arespalditzan.- ALKATE-UDALBURUA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez, ohiko bozketan, erabaki du onestea transkribatutako erabaki-proposamena, idatzi den moduan.

**5.- EH-Bildu alderdi politikoak aurkeztutako mozioa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartu dela EH-Bildu alderdi politikoak aurkeztutako mozioa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa, baina gai hau ez denez lehenago dagokion Informazio Batzordeko irizpenaren menpe jarri, bat etorriz Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikularekin, egokitzat jotzen da puntu hau gai-zerrendan sar dadila berrestea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du aipatutako gaia osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio EH-Bildu alderdi politikoak aurkeztutako mozioa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa. Hau dio:

***“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzko Mozioa.***

*Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema “arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa”, “titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz” osatua.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa.*

*2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek, batez ere Arabakoak eta Bizkaikoak, adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi zioten eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen*

ziren herritarrei 'txeke-zerbitzuak' ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek

1.753 'txeke-zerbitzu' ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 'txeke-zerbitzu' izateraino.

Zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimentsioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa 'zerbitzu-txeke' gisa instrumentalizatzea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa, helburu argi batekin "Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuratzea ezinezkoa denean soilik". Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeke erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murrizten zen bitartean.

Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki zen: "2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko" dira. Aldiz, 7 urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasa dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitortzeaz gain, kontsideratzen du 'zerbitzu-txekeak' kudeaketa-eredu bat gehiago direla (kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa) eta balioa ematen dio administrazioek "plaza" gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiago, ebaluazioak politika pribatizatzaile hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.

Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. 'Negozio' horretara 210 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean. Apustu politiko horrek geriatrikoetan espezializatutako eta atzerriko inbertsio-funtsekin lotutako talde handien 'gosea' piztu du; izan ere, azken urteotan gora egin dute EAEko adinekoen egoitza eta eguneko arretaren errealitatean.

Jarduera hori gure arau-esparrutik kanpo dagoela alde batera utzita, are garrantzitsuagoak dira zaintzaileek eta zainduiek egunerokoan dituzten ondorio larriak, eta, zoritxarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza eskuratzean.

Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.

*Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaida soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik,*

- 1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa dela adierazten du Aiarako Udalak.*
- 2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari pribatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiatzen du Aiarako Udalak.*
- 3. Aiarako Udalak uste du, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu egin behar dela aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzea bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoek garatzen ari badira”.*

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak hitz egin du, eta esan du mozio horretan adierazten dutela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak sare publiko bat duela, eta sare hori pribatizazio-politika bat jasaten ari dela. Gehitu du plazak emateari utzi diotela, eta, ondorioz, txeke-zerbitzuak % 2,5 areagotu direla. Jarraian, adierazi du hasiera batean txeke-zerbitzu horiek plazak erabilgarri ez zeudenean ematen zirela, edo zerbitzu publikoa ematea ezinezkoa zenean, baina orain baliabide hori gehiegi erabiltzen ari dela uste dute, eta negozioa egiten ari direla adinekoen arretarekin. Amaitzeko, esan du Udalarari eskatzen diotela adieraz dezala gizarte-zerbitzuen sare publikoari bere horretan eutsi behar zaiola, eta txeke horiek erabilerara jakin batzuetarako bakarrik erabili beharko liratekeela, eta aldi baterako, zerbitzu publikoak kasuan kasuko beharrak estaltzeko aukera izan arte.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du mozio honen aurka agertuko dela, horren zuzenketa aurkeztu dutelako.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak esan du mozio honen alde bozkatuko duela, uste duelako hainbat esparrutan publikoa pribatizatzen ari dela, eta ez soilik gizarte-zerbitzuen arloan, eta publikoa dena defendatu behar dela uste dute.

Parte-hartzeak bukatuta, erabaki dute, AIARA BATUZ eta EH-BILDUKo ordezkarien aldeko botoekin, eta EAJ-PNVko ordezkarien kontrako botoarekin, baztertzea EH-BILDUK aurkeztutako mozioa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa.

**6.- EAJ-PNVren zuzenketa, EH-BILDU udal-talde politikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruz aurkeztutako mozioari.-** Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaió osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartu dela EAJ-PNVk EH-BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioari (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa) aurkeztutako zuzenketa, baina gai hau ez denez lehenago dagokion Informazio Batzordeko irizpenaren menpe jarri, bat etorri Tokiko Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikularekin, egokitzen jotzen da puntu hau gai-zerrendan sar dadila berrestea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du aipatutako gaia osoko bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio EAJ-PNVk EH-BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioari (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa) aurkeztutako zuzenketa. Hau dio:

**“EAJ/PNVK AURKEZTUTAKO ZUZENKETA EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOARI (GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMARI BURUZKOA)”**

Gentza Alamillo Udaeta Jna, EAJ/PNV Udal Taldeko bozeramailea Aiarako udalean, indarrean dagoen erregelamenduaren babesean, EH Bilduren Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruzko mozioari, honako zuzenketa hau aurkezten dio:

**ZUZENKETA**

- 1.- Aiarako Udalak berresten du 12/2018 Legeak, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, egiten duen defizioa. Hau da, erantzukizun publikoko arretarako sare publiko artikulatua, titulartasun publikoko eta titulartasun pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduz osatua.
- 2.- Aiarako Udalak eskatzen die administrazio eskudun guztiei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egungo garapen positiboan lan egiten jarraitzeko, ikuspegi komunitarioa eta kalitatearen, berriduntzaren, zainketen oreka berriaren eta eraginkortasunaren printzipioak aintzat hartuta.
- 3.- Aiarako Udalak animatzen ditu arlo horretan eskumena duten administrazio publiko guztiak animatzen ditu, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarekin batera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren etengabeko eguneratzean sakontzera.

Arespalditza 2021en, Urtarrilaren 18an.

STA.- EAJ-PNVren Bozeramailea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak, honako testu hau irakurri du:

*“Ulertzen dugu gizarte-zerbitzuek, batez ere Araban eta Aiaran, arreta eta ardura publikoko sare publiko antolatu bat osatzen dutela. Oraintxe bertan martxan dagoen lana gizarte-zerbitzuen plan estrategikoaren ebaluazio-prozesua da. Prozesu hori ez da bukatu eta modu jakin batean ari da gauzatzen, lan koordinatua eginez gizarte-zerbitzuen arloko erakunde arteko organoekin. Orain egin beharrekoa gizarte-zerbitzuen euskal kontseiluari entzutea da, bera baita lan hori egiten ari dena, plan estrategikoan aurreikusten den bezala, eta ebaluazio horretarako datuak izango dituzte. Eta berriro diogu: lan hori ez da bukatu. Plana gizarte-zerbitzuen erakunde arteko organoko pertsoneri eraman zitzaien eta oraindik iruzkinak ditu, moldatu beharreko kontuei buruzkoak, eta osatuko egingo da erakundeek eta gizarte-zerbitzuen sisteman parte hartzen duten elkarteek zehaztasunez aztertu ostean. Errepikatzen dut: ebaluazio-prozesua egiten ari diren erakunde eta entitateak gizarte-zerbitzuen euskal zerbitzuaren*



*parte dira. Eta oraindik ez dute bukatu. Autonomia-erkidegoko administrazio orokorra urruti dago gizarte-zerbitzuak pribatizatzeko eta kanporatzeko jarreratik. Ulertzen dugu gaur egun gizarte-zerbitzuen euskal sistema kalitate handikoa dela, Estatuko eta Europar Batasuneko onenetakoa. Baina logikoa den bezala, sistema etengabeko hobekuntzan eta eguneratzean dago. Beraz, uste eta ulertzen dugu oraintxe bertan martxan dagoen erakunde arteko organoari denbora eman behar zaiola dagokion prozesua bukatzeko, eta errepikatzen dugu gizarte-zerbitzuen sistema publikoan sinesten dugula.”*

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du harritzen duela EH-BILDUK “txeke” deitzea zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoari.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak galdetu du ea behin Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren ondorioak ezagututa, mozio berriak egin daitezkeen eta batera aurkeztu.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du, hori gertatzen bada, edozein alderdik duela edozein iritzi emateko aukera, behin ondorio horiek ezagututa.

Parte-hartzeak bukatuta, erabaki da, EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoarekin eta AIARA BATUZ eta EH-BILDU udal-taldeetako ordezkarien kontrako botoekin, onestea EAJ-PNVren zuzenketa, EH-BILDU udal-talde politikoak aurkeztutako mozioari (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa).

**7.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2020/583 eta 2021/17 Alkatetza Dekretuak, aipatutako bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

### **“ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-**

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/583.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgako gizarte-zentroa egokitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/584.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgan hiri-altzariak instalatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/585.- E.C.O.- Done Bikendi urbanizazioa, udal-artxiboko dokumentaziorako sarbidea eta kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/586.- J.G.B.- Olabazarreko etxebizitza bateko terraza birgaitzeko Udalaren obra bukaerako lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/587.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Luiaondoko bidean harri-lubeta eraikitzeko obraren hondakinen kudeaketa egokiagatik berme gisa jarritako fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/588.- Aiarako Kuadrilla.- Gastu orokorretarako eta bestelakoetarako ekarpen ekonomikoa onestea, 4/2020.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/589.- Ama Birjina Zuria – 2020ko dirulaguntza

ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/590.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Izorian Urizandiko errota birgaitzeko obrarako hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/591.- JM.R.D.- Salmantonen etxebizitza bateko estalkia birgaitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio berria eskatzea (ondareari buruzko txostena – AFA).

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/592.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgan I. fasean dagoen aparkalekuaren eraikuntzarako Udalaren obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/593.-Kultura eta Arte Elkarte- 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/594.-Ibaizabal Gazte Elkarte - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/595.-J.A.Murga - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/596.- Iñaki Isasi Taldea - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/597.- C.J.Y.P.Santiago Apostol - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/598.- Menagaraiko Emakume taldea - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/599.- Ehiza eta Arrantza Elkarte - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/600.- Izoriako Administrazio Batzarra.- Izorian Urizandiko errota birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/601.- P.P.M.- Bere jabetzako etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko eskatutako Udalaren obra-lizentziari uko egitea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/602.- JD.V.O.- Bere jabetzako etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko eskatutako Udalaren obra-lizentziari uko egitea onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/603.- MV.A.U.- Lantenon partzela-itxiera konpontzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/604.-Bolos Lekubatxe - 2020ko dirulaguntza ematea eta % 80 ordaintzeko agintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/605.- Murgako Administrazio Batzarra.- Murgan frontoiko horma jasogailuarekin konpondu eta margotzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/606.- Alkatetzaren eskumenak eskuordetzea, udalerritik kanpo egongo delako.-2020ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/607.- Elkarkidetza Pentsioak.- Likidazio-faktura onestea, 2020ko abendua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/608.- 2020ko abenduko aparteko ordainsariari dagokien langileen eta alkatearen hilabeteko nominen txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/609.- M.V.D.- Zuhatzako etxebizitza bateko kanpoko arotzeria ordezkatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/610.- F/2020/16 kontabilitate-zerrendan erregistratutako fakturak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/611.- Faesnor SAL- Jardueraren aurretiazko jakinarazpena eskatzea eta hirigintza-birgaitzearen espedientearen hasiera jakinaraztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/612.- Zuhatzako Administrazio Batzarra.- Euri-urentzako saneamendu-sarearen obrarako hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/613.- Menoyo Gochiren Eraikuntzak SL- Zuatxako Plan Partzialaren urbanizazio-proiektuaren estatutuei buruzko dokumentazioa zuzentzeko eskaera.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/614.- Luiaondoko (Patxita Etxea) erabilera askotarako gunea egokitzeko obraren proiektu teknikoa idazteko zerbitzu-kontratua esleitzeko lizitazioaren prozeduran atzera egiteko dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/615.- I.L.P.de H.- Udal-artxiboko dokumentazio eta espedienteetarako sarbidea eta kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/616.- F.G.O.- Zuhatzako etxebizitzako estalkia birgaitzeko obrarako hondakinen kudeaketarako fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/617.- Aiarako Kuadrilla.- 2020ko 4. hiruhilekoko hondakinen kudeaketarako ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/618.- JM.P.S.- Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2020ko TMIZren ordainagiriaren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/619.- C.B.C, SL- Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2020ko TMIZren ordainagiriaren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/620.- Madariako Administrazio Batzarra.- Madarian argiteria publikoko puntu berri bat instalatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/621.- Murgako industrialdean erabateko birgaikuntza egiteko proiektu teknikoa idazteko zerbitzu-kontratua esleitzeko lizitazio-prozesuan atzera egiteko dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/622.- Agiñagako Administrazio Batzarra.- Agiñagan pasabide kanadar bi instalatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/623.- HAPOko hainbat sektoretan uholde-arriskua ikertzeko proiektu teknikoa idazteko zerbitzu-kontratuaren espedientea onesteko dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/624.- Fundación Benéfica Alday.- Arespalditzako partzela batean udal-lizentzia gabe negutegiak eraikitzeagatik zehapen-espedientea hastea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/625.- Aiara Txirrindularitza Elkarte.- 2020 deialdiko elkarte eta talde kulturalen dirulaguntza ukatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/626.- Etxaurren Ikastolan Hezkidetzako Proiektuko Jarduerak egiteko (2020) zerbitzu-kontratu txikia esleitzea Urtxintza Eskolari.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/627.- Inma Roiz Ulibarriri Aiarako emakumeen inguruko liburu bat egiteko zerbitzua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/628.- Fundación Alday.- Eguneko Zentroko gastuen kudeaketagatiko ordainketa egitea, 2020ko azaroa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/629.- Hogeitalau Elkarte. Emandako dirulaguntzaren %80 ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/630.- L.B.P. Familia ugariaren titulua egiaztatzeagatik TMIZn hobaria ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/631.- MC.C.A.- Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2020ko TMIZren ordainagiriaren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/632.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Restergo errekan harri-lubeta eraikitzeke Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/633.- 2020ko abenduko langileen eta alkatearen hilabeteko nominaren txostena onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/634.- Cubiertas Pejual SL- Udal-igerilekuetako aldageletako estalkia aldatzeko obra amaierako likidazioa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/635.- 2020ko Aiarako Udal Batzarretako teknikarien ordainsarien zati bat finantzatzeko dirulaguntzen ebazpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/636.- Administrazio Batzarrek egindako obrak finantzatzeko 2020ko deialdiko dirulaguntzen ebazpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/637.- E.S.I.- Okerreko kobrantza dela-eta TMIZren ordainagiria itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/638.- JM.G.B.- LANBIDE 2020 Lana Sustatzeko Programaren barruan peoi gisa aldi baterako kontratatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/639.-MF.T.S.- LANBIDE 2020 Lana Sustatzeko Programaren barruan peoi gisa aldi baterako kontratatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/640.- I.H.V.- LANBIDE 2020 Lana Sustatzeko Programaren barruan peoi gisa aldi baterako kontratatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/641.- A.M.I.- LANBIDE 2020 Lana Sustatzeko Programaren barruan peoi gisa aldi baterako kontratatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/642.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Lantenon errepide eta bideen arteko bidegurutzeak egokitzeke Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/643.- F/2020/17 kontabilitate-zerrendan erregistratutako fakturak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/644.- Lantenoko Ama Brijina Zuria Emakumeen Elkarte.- Lantenoko Eskola Zaharraren lokaleko horma konpontzeko Udalaren obra-

lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/645.- 1/2020 kreditu globalaren transferentzia.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/646.- J.J.G.A.- Covid-19aren ondorio ekonomikoak arintzeko autonomoentzako laguntzak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/647.- U.I.P.- Covid-19aren ondorio ekonomikoak arintzeko autonomoentzako laguntzak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/648.- 2020ko abenduko alderdi politikoentzako ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/649.- Eskola Agenda 21en barruko ingurumen-hezkuntzako ekintzen proiektua ezin izanenez egin, horretarako emandako dirulaguntzaren aurrerakina itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/650.- 2020. urteko EAEko kiroldagietako bazkideen kuotak ordaintzeko familiei zuzendutako laguntzen deialdiaren ebazpena.

-----  
ALKATETZA DEKRETUA - 2021/1.- Murgako La Iglesia auzoko 10. zk.-ko etxebizitzan leiho bat zabaltzeko eskatutako Udalaren obra-lizentzia baztertua onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/2.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- San Pedro-Jauregi auzoko hondakin-uren saneamendu-sarearen zati bat konpontzeko egindako obrako hondakinen kudeaketarako fidantza itzultzeko dokumentazio gehigarriaren eskaera.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/3.- Alkatea berriro bere betebeharrak itzultzea.- 2021eko urtarrila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/4.- M.D.S.- Arma-txartelean 4. mailako arma inskribatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/5.- F.J.C.S.- Covid-19aren garapenak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko laguntzen errekurtoa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/6.- F.J.C.B. Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2020ko TMIZren ordainagiriaren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/7.- J.M.R.B. Ibilgailuaren behin betiko baja dela-eta 2020ko TMIZren ordainagiriaren parte proportzionala itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/8.- J.L.L.U. Okerreko kobrantza dela-eta TMIZren ordainagiria itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/9.- 2020ko abenduko Udalbatzako kideen ekarpen ekonomikoa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/10.- Etxaurren Ikastola- 2020ko abenduko bi urteko ikasgelako psikopedagogia eta laguntza taldeari nominak ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/11.- GSDN- 2020ko azaroko kuotaren ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/12.- Aiaraldeko E. Kontseilua- 2020an emandako dirulaguntzaren ordainketa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/13.- Aiaraldea Koop. Elkarte-2020an emandako dirulaguntzaren % 80aren ordainketa onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/14.-L.S.T.- Covid-19aren garapenak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko laguntzen errekurtsua ebatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/15.- Fundación Alday.- 2020ko abenduko Eguneko Zentroaren kudeaketaren gastuen zerrenda onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/16.- 2020ko abenduko kontratatutako langileen (PECO 2020) nominak onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/17.- F.G.O.- Maroñon etxebizitza bateko estalkia birgaitzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak, 2020ko 614, 621 eta 623 dekretuei buruz, hasitako lizitazio prozeduretan atzera egiteari buruzkoak (Patxita Etxea, Murgako Industrialdea eta HAPOari lotutako uholde-arriskuen ikerketa), galdetu du ea berriro hasi diren horrekin, edo kontrara, zain dauden oraindik.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du lizitazio horiek berrantolatu egingo direla, martxan jartzeko berriz.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak galdetu du 613 dekretuari buruz, Zuhatzako Plan Partzialaren urbanizazioko proiektuaren estatutuei buruzkoa, Menoyo Gochiren Eraikuntzak SLk eskatutakoa; zehazki galdetu du ea zein den kontuaren egoera.

Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du teknikariek berrikusteko zain dagoela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak bezala, azpimarratu du berak ere 621 dekretuari erreferentzia egin nahi ziola (Murgako industrialdeko erabateko birgaikuntzaren proiektu teknikoa idazteko zerbitzu-kontratuaren esleipenerako lizitazio-prozesuan atzera egiteari buruzkoa); azpimarratu du aurrekontu-partida hori udal-aurrekontuan sartu zela ekainean, bere taldearen zuzenketa baten bidez, eta exekuzioa atzeratu egin dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak, 2021eko 5 eta 14 dekretuei erreferentzia eginez (COVID-19 laguntzen ukapenari buruzko errekurtsuak ebatzeari buruzkoak), adierazi du 14 eskabide ukatu egin direla baldintzak ez zituztelako betetzen, eta galdetu du ea posible den pertsona horiei berrikusteko aukera ematea eta berriro dirulaguntza eskaintzea.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du aurreikusita dagoela beste dirulaguntza bat sortzea ostalaritza-sektorerako, eta begiratu dutela beste motaren bateko beste batzuk sor daitezkeen. Hala ere, azpimarratu du oinarrietan jasotzen diren baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak ezin izango dutela dirulaguntzarik eskuratu egiten den edozein deialditan.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak esan du ados daudela horrekin eta horrela izan behar duela, baina proposatzen dutena dirulaguntza berriak egotea dela. Pozten da hala egingo dela jakinda, ez baitzekien.

## **8.-Eskaerak eta galderak.-**

**Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak** eskaera edo galdera hauek egin ditu:

- HAPOri dagozkion alegazioen ebazpenari dagokionez, esan du komunikazio handiagoa izan behar zutela, eta Aiararentzat hain garrantzitsua den gai bati buruz (HAPoa) bozkatzean EH-BILDUK duen jarrerak atsekabetu egin duela. Azpimarratu du lantzeko denbora egon dela, baina komunikazio errazago bat nahiko lukeela, eta nahiz eta kontu bat landu den, posible dela azken orduan zalantzak sortzea; eta EH-BILDUK adibidez 103 alegazioaren kontra bozkatu badu, zalantzak dituelako dela. Hori dela eta, egoera hau ez errepikatzea nahiko luke, talde bakoitzak bere ideiak aurkez ditzakeelako, horren inguruko iritzia aztertu eta berrikusi edo aldatzeko. Iritzia isildu eta aurkezten ez bada, Aiarak ez du irabazten.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du bat datorrela eta zuzena iruditzen zaiola Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreaken hausnarketa.

**Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunak** eskaera edo galdera hauek egin ditu:

- Parte hartu du kexa adierazteko Udalak kulturari dagozkion proposamen gutxi egiten dituelako.
- Banda zabala ezartzeko beharrezko azpimarratu du, gai honen konponbidea gehiegi luzatzen ari baita.
- Halaber, esan du Udalak ez diola erantzun Zorroza Gestion enpresan hil zen pertsonaren omenezko monolitoa jartzeko errekerimenduari. Azpimarratu du landu egin behar dela eta aurrerapauso bat eman.
- 2021eko udal-aurrekontuei buruz, azpimarratu du hemendik aurrera horiek lantzea nahiko lukeela, 2020an gertatutakoa saihesteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak udal-aurrekontuen inguruan esan du, beste udal batzuetan ez bezala, eta osasun-krisia jasan arren, udal honek ez duela 2020ko aurrekontuak egokitzeko beharrik izan.

Monolitoari dagokionez, esan du gobernu taldearen asmoa ez dela hildako pertsonak modu zehatzean omentzea; pertsona bat baino gehiago hil dira, eta beraz, mota honetako lan-istripuak, zoritxarrez gertatzen direnak, nabarmentzeko lan egingo da.

Kultur-ekitaldiei dagokienez, azaldu du bere gobernu taldea LABiren erabakien zain dagoela, ekitaldiok egiteko kontratuak bermekin esleitzeko. Kontuan izan behar da kontratuak esleitzen badira eta gero ezin badira bete, udalak lortu gabeko irabazia ordaindu behar duela.

**Karmeke Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak** eskaera edo galdera hauek egin ditu:

- Ikastaroei buruz esan du otsailean dantza-ikastaro bat egingo dela Luiaondon, eskola-kirola ere martxan dagoela, eta, adibidez, Laudion igeriketa martxan dagoela. Azpimarratu du kultura- eta kirol-ekitaldi batzuk egin zitezkeela, dagozkien osasun-neurriekin.
- 2020ko udal-aurrekontuan gauzatu gabe utzi ziren partidei dagokienez (adibidez, Murgako industrialderako proiektua idazteko kontratuaren lizitazioa), berriz martxan jartzeko eskatu du .

Baita, adibidez, nagusien egoerari buruzko ikerketa ere.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du 2021ean egingo dela industrialderako proiektu teknikoaren lizitazioa, eta aurrera eramango dela ezarrita zegoen moduan. Halaber, azpimarratu du aipatutako beste partidari dagokionez, bakarrik bizi diren adineko pertsonen egoerari buruzko ikerketa egitea aurreikusita dagoela, baita arrisku posibleena ere (adibidez, etxebizitzetan egon daitezkeen irisgarritasun- eta su-arriskuak). Guzti hori txosten bakar batean jasoko da, zeina gizarte-langile baten esku egongo den. Baina, adierazi du enpresaren batekin hitz egin duela eta ikusi dela 10.000 € ez direla nahikoa izango.

Ikastaroei buruz, Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du garrantzitsua dela LABiren gomendioak kontuan hartzea enpresekin kontratuak sinatzerakoan, izan ditzakeen ondorioengatik.

Karmeke Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak adierazi du pertsona nagusien egoerari buruzko ikerketara bideratuko den partidari buruzko informazioa izan nahiko luketela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du gai hori batzordera eramango dutela.

**Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak** eskaera edo galdera hauek egin ditu:

- Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak azpimarratu du esan dutela 2020ko aurrekontuan aurreikusitako 10.000 €-ko partida ez dela nahikoa, baina uste du gutxienez bere taldeari horren berri eman behar zitzaiola, galdetzeko beharrik gabe; izan ere, haiek izan ziren aurrekontuan sartzea proposatu zutenak.
- Halaber, aurrekontuko partidak gauzatzeari buruzko informazioa falta zaiela esan du, baita beste kontu batzuei buruzkoa ere; adibidez, ez zekiten udal-langileek telelana egingo zutenik, ezta zein egutegitan ere.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du udal-langileek etxetik lan egiten dutela haien beharrianetara egokitutako astegunetan, eta herritarren zerbitzuak ez duela eraginik jasan horregatik.



Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak azpimarratu du haiek ez dakitela zein langile dagoen udaletxera joaten direnean.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du beren funtzioa langileak artatzea ere badela; eta, herritarren arretari dagokionez, berdin dio pertsona batek zein besteak artatu, eta modu berean artatzen da aurrez aurre edo telematikoki.

**Iñigo Pinedo Vadillo (EAJ-PNV) zinegotzi jaunak** esan du EH-BILDU udal-taldearen argumentuari buruz, zeinaren arabera HAPOaren hasierako onespeneren aurkako alegazioak lantzeko ordena aldatzearen ondorioz ezin izan baitzuten beren iritzia eman, argumentu oso eskasa iruditzen zaiola jarrera bat ezin hartzeko.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du gaueko bederatziak eta hiru minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko urtarilaren hogeita batean.

O.E.  
ALKATE-UDALBURUA.

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA.

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.